



AURRERA!

82. zk.

2022ko abendua

Berrikuntza eta Teknologia Berrien dibulgaziozko aldizkaria

Bulego Teknologikoak argitaratua

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza

AURKIBIDEA

▲ DBEBren

Intraneta

Sharepointera

migratzea

2. or.

▲ «NIK», gure

patrika digitala

6. or.

Alboan

▲ EJIek 40 urte

bete ditu

10. or.

Kontrazala

▲ LibreCon2022

▲ 2022ko Gladys

saria, Olatz Pérez

de Viñasprentzat

12. or.

Sharepointak gero eta gehiago erabiltzen dira Eusko Jaurlaritzako sailetan eta erakunde autonomoetan, batez ere eskaintzen dituzten erabilgarritasunei eta funtzionalitateei esker. Hainbestera, non sail batzuek plataforma horren gainean eratu baitute beren intraneta. Iritsi zaigun azken adibidea Datuak Babesteko Euskal Bulegoarena da. «*DBEBren Intraneta Sharepoint-era migratzea*» izeneko artikulua bidez, nola egin duten jakingo dugu, eta azken emaitza ikusiko dugu.

Bigarren artikuluan, Eusko Jaurlaritzaren ekimen berri bati buruz hitz egingo dugu; «*NIK, patrika digitala*» deritzonaz, alegia. Horren bidez, poltsikoan formatu fisikoan (paperean) eraman ohi diren txartelak edo ziurtagiriak kudeatzea eta (dagokion tokian) aurkeztea erraztu nahi zaie herritarrei. Proiektuaren jatorria, orain arte egin diren probak eta hainbat esparrutan izan duen erabilera azalduko dizkizuegu.

«*Alboan*» izeneko atalean, berriz, EJIera hurbildu gara haren 40. urteurrena ospatzeko. Horretarako, hizpide izango dugu Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak efemeride hori ospatzeko antolatu zuen ekitaldia, zeinean Iñigo Urkullu lehendakariak ere parte hartu zuen.

Joan den azaroaren 15ean eta 16an «*LibreCon2022*» kongresuaren beste edizio bat egin zen Bilbon; teknologia irekien sektoreko Europa hegoaldeko erreferentziatzko nazioarteko ekitaldiarena, alegia. Ekitaldian 1.600 pertsona baino gehiago izan ziren, eta aukera ona izan zen beste administrazio eta erakunde batzuek hainbat esparrutan izandako esperientzia ezagutzeko, hala nola metabertsoa, konputazio kuantikoa eta zibersegurtasuna.

«*Protagonistak*» atalean, Olatz Pérez de Viñaspreren ibilbide profesionala ezagutuko dugu. Duela gutxi, «*Gladys 2022*» saria jaso du, PuntuEUS Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateak antolatua.

Eta urtea amaitzeko...

*Ėorionak eta 2023. urte oparoa
izan dezazuela!*



DBEBren Intraneta Sharepointera migratzea



Sharepointek funtzionalitate asko eskaintzen dizkigu gaur egun. Hainbestera, non Datuak Babesteko Euskal Bulegoak plataforma hori erabili baitu bere intranet berria garatzeko.



Datuak Babesteko Euskal Bulegoak (DBEB¹) bere intranet korporatiboa onlineko SharePointera eraman berri du.



SharePoint gunearen mota aukeratzea

DBEBren Intraneta ostatatzeko zer gune mota sortu aukeratzean, Sharepointek gaur egun eskaintzen dizkiguten funtzionalitate eta ezaugarriak aztertu zituzten proiektuaren arduradunek, eta bi aukera zeudela ikusi zuten:

1. Komunikazio gunea
2. Taldeko gunea

Intraneta ostatatzeko tokia erabakitzeari dagokionez, hauxe da bien arteko aldea: **Komunikazio Guneak** orri elebidunak sortzeko aukera ematen du, bai eta pertsona bati mezu bat bidaltzeko aukera ere, orria itzul dezan. Gainera, aukera ematen du hizkuntza

goiko menu batean aukeratzeko, eta editatzeko orduan, hainbat web elementu erabiltzen ditu (fitxategien bisorea, egutegiak, kode-zatiak...); gunea beste pertsona batzuekin partekatu nahi izanez gero, goiko eskuineko izkinara jo behar da («gunea partekatu»), eta ez du lehengo baimen-konfigurazioa heredatzen. Horrelako guneak entzuleria handientzat daude pentsatuta.

Taldeko Gunean, sarbide-baimenak emateko, «gunearen konfigurazioa» atalera jo behar da, eta baimenak heredatzeko aukera dago; gune horiek lantalde txikiak pentsatuta daude; ez du aukerarik ematen bi hizkuntzatan orrialde paraleloak izateko, baina HTML formatuko orriak erraz editatzeko aukera ematen du, eta hori da, hain zuzen ere, web-orriak egiteko formatu estandarra.

Aukera bakoitzaren abantailak eta desabantailak aztertu ondoren, DBEBk «*Taldeko Gunea*» aukeratu zuen bere intraneta sortzeko, Komunikazio Gunearen orde. Hori horrela, eredu honi jarraitu zioten orri elebidunak diseinatzeko: euskarazko informazioa ezkerrean maketatzea, eta

¹ **DBEB:** Datuak Babesteko Euskal Bulegoa zuzenbide publikoko ente bat da; nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu osoa ditu, eta administrazio publikoekin inongo loturarik gabe betetzen ditu bere eginkizunak.

DBEBk datu pertsonalen babesarekin lotutako kontsulter erantzuten die, eta hedapen- eta prestakuntza-ekintzetan parte hartzen du, gai hori arautzen duen araudian aitortutako eskubideak ezagutarazteko, pribatutasunaren balioari buruzko kontzientzia publikoa handitzeko eta EAEko administrazio publikoek eguneroko jardueran errespetatzen dituztenak.

www.avpd.eus

The screenshot shows the DBEB intranet interface. On the left, there is a navigation menu with sections like 'Ere Erakunde', 'Inglesen Ataria / Pertsonak', 'Komunikazio Zentroa', and 'Eskak'. The main content area displays a list of documents with columns for document name, status, and date. On the right, there is a 'Gorria!' (Red!) section with a list of news items and dates.

Gorria!	
Liburutegia: liburu berriak	2020 / 11 / 04
DBEBko aldiakariaren orria, eguneratua	2020 / 11 / 09
COVID-19: Euzko neurrak	2020 / 11 / 01
2020rako telelana	2020 / 03 / 06
Lanaida eta ondutegiak - 2020	2020 / 01 / 15
Lansariak eta Itzari	2020 / 01 / 15
Laneko Jaiegunen egutegi ofiziala - 2020	2019 / 10 / 22
Ahaidetasun-mata Berrak!	2015 / 10 / 19
Lan egin partailatan	2013 / 12 / 18
MUTUALIA medikuntza prestazioak	2013 / 01 / 02
DBEBko egotzera etorri direnen egiaztatzea	2012 / 01 / 13
Testuak idatzeko gomendioak: letra modak	2018 / 07 / 13
Egutegian datuak sartzeko gida	2016 / 01 / 13
Ekitaldi eta bilerak; nola kudeatu informazioa	2017 / 09 / 28

1. irudia: Lehengo intranetaren argazkia

gaztelaniazkoa, eskuinaldean (bi zutabeko taula-formatuan), betiere orrialde beraren barruan. Taldeko Gunea aukeratuta (HTML euskarria baitu), aski erraza izan da intranet zaharretik migratzea.

Hirugarren gune mota bat ere badago, «*Kontzentratzailea*» («*Hub*») izeneko; guneen arteko konexioa ahalbidentzen du, eta nabigazio hedatua sortzen du, baina ez dago eskuragarri gure lan-ingurunean.

«Intranet berriaren abantailak bat da orain edozein gailutatik atzi daitekeela, VPN bidezko konexiorik erabili gabe»

Horrelako zereginetarako ez da gomendatzen web-orriak diseinatzeko tresnak erabiltzea; izan ere, ezagutza eta espezializazio handia behar izaten da, eta edozein erabiltzailek ez daki tresna espezializatu horiek nola baliatu. Kontuan izan behar da, gainera, litekeena dela tresna horiekin diseinatutakoak euskarririk ez izatea onlineko SharePointen etorkizuneko bertsioetan, eta, ondorioz, galdu egingo liritekeela garatutako funtzionalitate guztiak.

Adierazi dugun bezala, DBEBren proiektuaren helburua zen onlineko SharePointera

migratzea lehendik zegoen guztia —hau da, web-atariak sortzeko O53 aplikazioan oinarritutakoa—, baina lehengo itxurari, atalei eta edukiei ahalik eta gehien eutsita; horrez gain, eduki berriak era dinamikoz gehitzeko aukera izan behar zuen.

Taldeak sortzea Teams-en

Lehenengo urratsetako bat zera izan zen: Teamsen bidez DBEBren antolaketa-ardatzari lotutako taldeak sortzea (SharePointentzat definitutako nomenklatura² normalizatuari jarraituz); honela egituratuta gelditu dira:

- ▲ 955-00-DBEB
[Agentziako pertsona guztiak]
- ▲ 955-00-Zuzendaritza Kontseilua
- ▲ 955-01-Aholkularitza
- ▲ 955-02-Erregistroa
- ▲ 955-03-Idazkaritza

Antolaketa-talde bakoitzerako (Agentziaren eremu funtzionalak) SharePoint bat sortu da ondoren.

Nola ikusten den

Intraneta SharePointeko «*Home*» (orri nagusia) jarri da ikusgai, lehen taldeari (955-00-DBEB) lotuta, eta horretarako sarbidea dute DBEBn lan egiten duten guztiak; intranetaren orri nagusi gisa dago konfiguratuta.

[ikusi intranet berriaren irudiak]



² **Nomenklatura:** gaur egun definitutako nomenklatura eta Sharepoint plataformaren funtzionalitateak edo ezaugarriak ezagutzeko, Jakina Intraneteko «*Prestakuntza*» ataleko «*Windows 10 eta Office 365*» azpiatalean argitaratutako dokumentazioa kontsulta dezakezue.




2. irudia: Intranet berriaren argazkia



DBEBren araudia

- ▲ 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa. (2004ko martxoaren 4ko EHAA, 44. zk.)
- ▲ 309/2005 Dekretua, urriaren 18koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua onartzen duena. (2005eko azaroaren 9ko EHAA, 213. zk.)
- ▲ Ebazpena, 2005eko azaroaren 28koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egitura organikoa garatzen duena. (2005eko abenduaren 29ko EHAA, 247. zk.)
- ▲ Ebazpena, 2013ko ekainaren 17koa, egitura organikoa aldatzen duena. (2013ko uztailaren 12ko EHAA, 133. zk.)

Datuak Babesteko Euskal Lege berri bat izapidetzen ari dira.



3. irudia: Intranet berriaren eta bere atalen argazkiak

Gorri ageri den testuak badu lotura bat, eta beste eduki batera darama horrek: kanpoko helbide edo URL bat, barneko SharePointeko informazio propioa, edo DBEBren webguneko orri bat.

barne), eta Interneten eskura daitekeen informazioa, Agentziarena ez dena.

Fitxategi korporatiboen zerbitzarietan (M, N, W:... sare-unitateak) zeuden datuak sareko



4. irudia: «Langileen ataria» atalaren argazkia

ADIBIDEAK

Osalanek ere oinarritu du bere intraneta Sharepointen. Proiektuaren xehetasunak ezagutzeko, jo ezazue 2021ean prestatu genuen artikulura: «Osalanen intraneta Sharepoint-en oinarrituta», Aurrera aldizkariaren 78. zenbakian argitaratua (2021eko abendua)



Adibidez, «Langileen ataria» + «Lan-baldintzak» sakatzen badugu, hurrengo orrialdera joko dugu (elebiduna); orri horrek, berriz, beste lotura batzuk ere baditu:

Orri hori aplikazioen ataletik sortzen da, «Wiki-orrialdeen liburutegia» hautatuta.


Intraneteko informazioa

Lehen esan bezala, hiru eduki mota bereizten dira: Agentziak bere kontsumorako sortutako barne-dokumentuak; Agentziaren beraren webgunean dagoen informazioa (wiki-orriak

unitateak hodeira migratzeko planari jarraituz migratu dira; hau da, Agentziaren zerbitzu bakoitzari lotutako SharePointetara. Beraz, orain intranet korporatibotik eskura daitezke, «Mahaigain Birtual» bat erabili beharrik gabe.

Barne-dokumentuak, oro har, DBEBren Idazkaritza Zerbitzuan dute jatorria, eta, horregatik, «955-03-Idazkaritza» SharePointen barruan, «Dokumentuak» gunean, «Intranet» izeneko karpeta sortu da, eta bertan jasoko dira intranetekin lotutako dokumentuak, pertsona guztiak eskuratzeko moduan.

Intranet berriak eskaintzen duen abantaila handienetako bat da edozein gailutatik atzi daitekeela orain; aski da Interneterako sarbidea duen nabigatzaile bat erabiltzea (Sare Pribatu Birtualak —VPNak— erabili beharrik gabe, edukia ikusi ahal izateko ezinbesteko baldintza duela gutxi arte). □



«NIK», gure patrika digitala



Orain arte, paper-formatuan eraman izan ditugu ziurtagiriak eta txartelak gure diru-zorroan edo patrikan. Bada, garaiak aldatu egiten dira, eta hemendik aurrera formatu digitalean eraman ahal izango ditugu gure telefono mugikorrean, «*patrika digitala*»³ deritzenen bidez.



³ Patrika digitala:

(«*Wallet*», ingelesez) «app» edo aplikazio mugikor bat da, eta era guztietako txartel edo agiri pertsonalak gure telefonoan **modu seguruan** gordetzeko aukera ematen du; abantaila handia da hori, ez baititugu dokumentu horiek guztiak fisikoki eraman behar.

⁴ **OTI:** Osasun-Txartel Indibidualaren siglak dira, EAEn bizi garenok Osakidetzaren sareko zentroetan eta farmazietan —agindutako botikak jasotzeko— aurkeztu behar dugun txartel urdin ospetsua.

«NIK» aplikazioari esker, txartel digital berriak plastikozko txartel tradizionalak adina balio du.

Eusko Jaurlaritzak, EJIeko Berrikuntza eta Zaintza Teknologikoko arloaren bitartez, bere patrika digitala garatu du («*NIK, patrika digitala*» izena jarri diote). Patrika digital hori dagoeneko erabilgarri dago zenbait zerbitzutarako, hala nola bertan gure Osasun Txartel Indibiduala (OTI⁴) eramatea, edo gure herriko kiroldegiko bazkide-txartela, haren instalazioetara sartzeko.



Dena den, NIK patrika digitala:

- ▲ Ez da diru-zorro bat
- ▲ Ez da fidelizazio-txartelen argazkiak gordetzeko aplikazio bat
- ▲ Ez da kreditu-txartelak gordetzeko, eta
- ▲ Ez da ordaintzeko modu bat

Telefono mugikorrari eta «*NIK, patrika digitala*» aplikazioari esker, pertsona batek aski izango du telefono mugikorra erakustea dagokion zerbitzuan identifikatu eta erabili ahal izateko. Zerbitzuak lortzeko edo jarduerak egiteko beharrezkoak diren egiaztagiri fisikoak gorde eta aldean eraman ordez, aplikazio honekin **formatu elektronikoa**n gordeta eraman ditzakegu gure telefono mugikorrean; horrek erosotasun handia ematen digu, eta arintasuna eta segurtasuna Administrazioaren zerbitzuak jasotzeko orduan.

Aplikazio berri horri esker, beraz, ez da

beharrezkoa izango gaur egun poltsikoan daramagun plastikozko txartel mordoa eramatea, eta ez da ezer gertatuko inoiz diru-zorroan horietakoren bat sartzea ahazten bazaigu, beti egongo baitira gure mugikorrean.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzak bultzatu du aplikazioa, eta EJIek garatu du.

Izan ere, «NIK» **eraldaketa digitalaren arloko proiektu estrategikoa da**, gobernu-programan jasoa, eta EAEko administrazio publikoen zerbitzuetara iristeko atea izan nahi du.

Ikus ditzagun orain kasu erreal batzuk, zeinetan «NIK» aplikazioa jada erabiltzen ari den.

OSASUN-TXARTEL INDIBIDUALA

Duela hilabete batzuk, Osakidetzak eta Osasun Sailak proiektu pilotu bat jarri zuten abian, Osasun-Txartel Indibidualaren (OTI) bertsio digitalaren erabilera probatzeko «NIK» aplikazioaren barruan. Lehenengo fasean, Gasteizeko Lakuabizkarra Osasun Zentroko



(Araba) erabiltzaileekin baino ez zen hasi Osasun Saila OTI digitala probatzen.

OTI digitala instalatu zuten pertsonak (2.600 inguru guztira) zenbait astez jardun ahal izan zuten osasun-sistemarekin, telefono mugikorra erakutsiz. Proiektuaren arduradunek adierazi dutenez, zerbitzu digital berri horren helburua ez da plastikozko ohiko txartela ordezkatzea, herritarren eta EAEko osasun-sistemaren arteko interakzioa hobetuko duen zerbitzu erantsi bat izatea baizik.

Esan bezala, proiektu pilotua, hasiera batean, Lakuabizkarra auzoko (Gasteiz) bizilagunei zuzendu zitzairen. Hala bada, OTI digitala baliatuz identifikatu ahal izan zuten beren burua Lakuabizkarra osasun-zentroan, Arabako Unibertsitate Ospitaleko kanpo-kontsultetan, eta auzo horretako zortzi farmazietan botikak eskuratzeko. Sistemaren funtzionamendu egokia egiaztatu ondoren, asmoa da zerbitzu hori EAE osora hedatzea laster.


[Ikus «Nola eskuratu OTI digitala» koadroa]

KIROLDEGIAK

Santurtziko Udalak (Bizkaia), berriz, duela gutxi probatu du NIK patrika digitalaren erabilera. Kasu horretan, ekimen bat jarri du martxan,

kiroldegietako bazkideek telefono mugikorra erakustea aski izan dezaten instalazioetan sartzeko.

Proba pilotua amaitu ondoren, Santurtzin⁶ parte hartu duten pertsonak (800 inguru) oso



NIK erabiltzea kiroldegi batean sartzeko. [Argazkia: Santurtziko Udala]

positibotzat jo dute esperientzia; hori dela eta, sistema bera laster EAEko beste udalerrri batzuetara hedatzea espero dute «NIK» proiektuaren arduradunek.

Hala Osasun Sailaren OTI digitalarekin, nola Santurtziko kiroldegietan, **funtzionamendua** oso erraza da; telefono mugikorrean NIK app-a deskargatu, erregistratu eta interesatzen zaigun txartela edo ziurtagiria «aktibatu» baino ez dugu egin behar. Behin hori eginda, lotuta ditugun txartelak ikusiko ditugu, eta zer txartel nahi

OTI digitala nola eskuratu

Lehenik eta behin, ziurtagiri digital bat eduki behar da (BakQ⁵ edo antzekoa). Jarraian, «Nik patrika digitala» app-a deskargatu beharko dugu gure telefono mugikorrean; aplikazio hori «App Store» edo «PlayStore» gordailuetan eskura daiteke.

App-a mugikorrean instalatu ondoren, patrika digitala konfiguratu; PINa zehaztu; desblokeatu eta autentifikatzeko metodoa aukeratu, eta gure datuak sartu beharko ditugu. Ondoren, gure datuekin «segurtasun-saioa» deskargatu eta gure patrika irekiko da. Ondoren, nahi dugun ziurtagiria «deskargatu» edo «aktibatu»

behar dugu; kasu honetan, OTI digitala. Hori egindakoan, gure OTI digitaleko kredentzialetara jo ahal izango dugu, behar den tokian aurkezteko.



- ⁵ BakQ: identifikazio eta sinadura elektronikorako bitarteko bat da, 16 urtetik gorakoentzat, eta identifikatzaile batek eta bi autentifikazio-faktorek osatzen dute:
- ▲ Erabiltzailea (pertsonearen NANA)
 - ▲ Pasahitza (8 karaktere)
 - ▲ Telefono mugikorrera SMS bidez bidaltzen den kode bat

Ordenagailuetan, mugikorretan eta tabletetan erabil daiteke, sistema eragilea edozein izanik ere, eta softwarerik instalatu beharrik gabe.

BakQ erabiltzen da online kontsultak eta izapideak egiteko administrazio publikoetako zerbitzuetan, bai eta izapide elektronikoak egiteko ere.

Horietako bat lortzeko, Izenpera jo behar da.

www.izenpe.eus





6 Santurtzi: 2021eko datuen arabera, Santurtziko udalerrriak 46.085 biztanle zituen guztira, eta bi kirol-instalazio ditu:

- ▲ Kabieses Kirol Zentroa
- ▲ Mikel Trueba kiroldegia

Web-orria:

<https://www.santurtzi.net>
<https://santurtzikirolak.eus>




dugun, hori hautatu baino ez dugu egin behar. Santurtziko kasuan, mugikorrean agertzen zaion QR kodea erakutsiz sartzan da erabiltzailea kirol-instalazioetan, eta sarrerako tornuak automatikoki irekitzen dira.

Horrela, pertsona orok euskarri elektronikoan gorde ditzake bere egiaztagiriak telefono mugikorrean, eta keinu bakar batez (telefono mugikorra erakutsiz) dagokion zerbitzuan identifikatu ahal izango da. Zerbitzuak eskuratzeko beharrezkoak diren dokumentu fisikoak gorde eta eraman beharrik gabe, formatu elektronikoan eramango ditugu gailu mugikorrean.

ALDERDI TEKNIKOAK


Ikuspuntu teknikoago batetik, «NIK» *wallet*-a, funtsean, informazioa modu seguruan trukatzeko mekanismo estandar bat da, eta, horretarako, nortasunak egiaztatzeko kanpo-zerbitzu bat behar du; kasu honetan, Evernym enpresak egiten du. Funtzionamenduari dagokionez, ohiko posta-edo pakete-bidalketen antzekoa da; horrelakoetan hirugarren bat behar da (adibidez, Correos...), eta dagokion paketea edo informazioa garraiatu eta entregatu behar du horrek. Evernymek eskaintzen duen ingurune digitalean, datuak zifratuta eta sinatuta ateratzen dira sorburutik, eta, beraz, segurtasuna

erabatekoa da; horrenbestez, gehigarria edo extra komunikazio-kanalean datza, erabat independentea baita Googlek (Android) edo Applek (iOS) eskaintzen dituzten kanal generikoekiko.



Evernymek eskaintutako kanalak segurtasuna eta entregatzeko bermea ematen digu.

Soluzioaren **arkitekturari** dagokionez, zerbitzugeruza bat garatu da (API⁷), NIK erabiltzen duten aplikazioak abstraitzen dituen «garraiolari»-aren etorkizuneko balizko aldatetarik. Maila teknikoan, hortaz, API



osagai bat dago, Eusko Jaurlaritzaren azpiegiturretan hedatua, eta aplikazio mugikor bat, bai Androiderako bai iOSerako eskuragarri.

SEGURTASUNA

Horrelako sistemetan, segurtasuna **funtsezko elementua** da beti. Izan ere, txartel digitala bitarteko segurua da, gailua **identitate indartsu** bati lotzen zaiolako; horri esker, gaintu egiten da informazio faltsutua edo legez kanpoko erabili ahal izateko mehatxua.

Telefono mugikorra lapurtzen badigute, adibidez, lapurrak ezin izango du patrika digitalera eta haren informazioa jo, aplikazioak sarbide fisikoa kontrolatzen baitu, kode baten, hatz-marka digital baten edo gailu mugikorrek berak duen aurpegi-errekonoizimendu biometrikoaren bidez.

Era berean, txartel digitalak **iraungitze-kontrol automatikorako aukera** ematen du, plastikozko txartelek ez bezala, berariaz eskatu behar baita azken horiek berritzea. Horri esker, hobeto kudeatu ahal dira zerbitzuen hartzaileak.

Gainera, txartel fisikoek eragozpen handi bat

dute; denboraren joanak eta txartelaren erabilera okerrak eragindako nariadura naturalaren arazoa, alegia. Horrelakorik ez dago, ordea, akreditazio digitalak erabiliz gero.

NIK aplikazioaren azken helburua zera da: EAEko herritarrek mugikorrean eraman ahal izatea euskarri digital

balioduna eta segurua, beren burua identifikatzeko, eta EAEko Administrazio



«NIK patrika digitala» aplikazioak orain arte plastikozko txarteletan aurkezten ditugun egiaztariak telefono mugikorrean gordetzeko balio izango du»

Publikoaren zerbitzu guztiekin elkarreraginean aritu ahal izateko.

Horregatik, datozen hilabeteetan zerbitzu berriak gehituko zazikio «NIK» aplikazioari.



⁷ **API:** «Application Programming Interface» terminoaren ingelesezko siglak dira (aplikazioak programatzeko interfazea, alegia). Funtsean, azpirrutinen, funtzioen eta prozeduren —edo, objektuei orientatutako programazioan, metodoen— multzo bat da, azpirrutina-liburutegi bat eskaintzen duena beste software batek erabil dezan.

[Iturria: Wikipedia]

2022ko LibreCon saria

Aurtengo azaroaren 15ean eta 16an egin zen, Bilbon, LibreCon nazioarteko ekitaldia, teknologia irekien sektoreko Europa hegoaldeko erreferentziazkoa bera, eta bertan «NIK, patrika digitala» proiektuak eskuratu zuen erakunde horrek emandako sarietako bat; zehazki, kategorian honetan: «*Herritarrengan eragin handiena izan duen open teknologietan oinarritutako proiektu onena*». Xabier Arrietak (Eusko Jaurlaritzako Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien zuzendaria) eta Oscar Guadillak (EJIEko Berrikuntza eta Zaintza Teknologikoaren arduraduna) jaso zuten.



Ezkerretik eskuinera: Oscar Guadilla (EJIE), Iker Sagasti (LibreCon) eta Xabier Arrieta (Eusko Jaurlaritza)

[Argazkia: LibreCon2022]

ALBOAN



EJIEk 40 urte bete ditu



Joan den azaroaren 29an, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIE) 40. urteurrena ospatzeko ekitaldi nagusia egin zuen Azucarera eraikinean, Gasteizen (Araba), Iñigo Urkullu lehendakaria buru zela.

Bertaratu zirenen artean zeuden Eusko Jaurlaritzako kargudunak, EJIEko langileak eta Administrazio Kontseiluko gaur egungo eta lehengo kideak.

EJIEk Gobernu Digitalean aurrera



Ezkerretik eskuinera: Olatz Garamendi (Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua), Iñigo Urkullu (lehendakaria) eta Asier Sáez de Vicuña (EJIEko zuzendari nagusia). [Argazkia: Irekia]



Eusko Jaurlaritzaren
Informatika Elkarteak

Sociedad Informática
del Gobierno Vasco



Eraldaketa digitala,
auzolanean

Transformación digital
para el bien común

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu Olatz Garamendik EJIE «*anonimotasun*» eta ikusezintasunetik ateratzearen alde egin zuen, haren lana eta funtzioa kanpoan proiektatu behar delako. «*Gure lurraldean bizi diren pertsonen bizitzan hobetzeko ezinbestekoa den enpresa publikoak bere markaren balioa indartu behar*



egiteko duen «*rol protagonista*» nabarmendu zuen lehendakariak bere hitzaldian, eta eskerrak eman zizkien EJIEko langileei; egin-eginean ere, «*teknologiaren esploratzailetzat*» jo zituen, joan den mendeko 80ko hamarkadaren hasieran teknologiaren, berrikuntzaren eta digitalizazioaren alde egin eta EJIEren oinarriak jarri baitzituzten. Eskerrak eman zizkien, orobat, 40 urte hauetan enpresa publikoan egondako langile guztiei (505 pertsona), «*ekarritako ezagutzagatik eta egin duten lan onagatik*».

Lehendakariak adierazitakoaren ildotik,



Asier Sáez de Vicuña (EJIEko zuzendari nagusia). [Argazkia: Irekia]



[Argazkia: Irekia]

du orain», adierazi zuen, EJE gogoan. Horregatik, sailei, ente eta organismo autonomoei eta enpresa publikoei EJEra «hurbiltzeko» gonbita egin zien.

Sailburuak nabarmendu zuen, halaber, EJEk zer lan egiten duen Eusko Jaurlaritza osoak



[Argazkia: Irekia]

Hasiera

1982ko martxoaren 23an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian dekretu hau: «60/1982 Dekretua, otsailaren 1ekoa, Ekonomia eta Ogasun Sailak proposatuta, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte - Sociedad Informática del Gobierno Vasco SA merkataritza-erakunde anonimoa eratzeari buruzkoa». Eta dekretu horren bidez sortu zen EJE ofizialki.

EJE da Eusko Jaurlaritzaren organo kudeatzaile teknologikoa; hala, zerbitzu publikoen digitalizazioa errazten du, eta zerbitzu horien euskarri diren informazioaren eta komunikazioaren teknologien kalitatea, segurtasuna eta jarraitutasuna bermatzen ditu.



«funtziona dezan», eta, azpimarratu zuenez, enpresa publiko horrek hasieran ere izan zituen etorkizun-«sen handiko» pertsonak. «Norbaitek imajina al dezake Eusko Jaurlaritzarik lanpostuan ordenagailurik, sistemarik, garapenik edo aplikaziorik gabe? Ziur ezetz. Nik neronek ere ezin dut imajinatu EJErik gabeko Eusko Jaurlaritzarik», gaineratu zuen Informatika Elkarte atxikita dagoen Saileko buruak. □

Zorionak, EJE!!



Iñigo Urkullu (lehendakaria). [Argazkia: Irekia]

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta EJEren arteko harremana martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren bidez zehaztuta dago gaur egun, eta, bitarteko propio gisa, EJE arduratzen da Eusko

Jaurlaritzaren zerbitzuen eta azpiegitura korporatiboaren mantentze-lanez, bai eta EAEko administrazioaren proiektu teknologiko estrategikoak kudeatzeaz ere; haien artean, nabarmentzekoa da gaur egun EAEko Administrazioa egiten ari den konbergentzia-prozesua («BATERA proiektua»); proiektu horren helburua zera da: eskura dauden baliabideen erabilera optimizatzea eta administrazioak, EAEko gizarteari zerbitzuak emateko orduan, eraginkorragoak izan daitezen lortzea.



Argibide gehiago IREKIAN: (ekitaldiaren bideoa eta argazkiak barne) <https://www.irekia.euskadi.eus/cu/news/81966-lehendakari-destaca-rol-protagonista-sociedad-informatica-eje-para-avanzar-gobierno-digital>



EJEren webgunea: <https://www.eje.eus>

IXTEKO

LibreCon2022

Aurten ere, Euskadiko Teknologia Libreko eta Ezagutza Irekiko Enpresen Elkarreak (ESLE) LibreCon biltzarraren beste edizio bat antolatu du. Ekitaldia azaroaren 15 eta 16an egin da, Bilboko Euskalduna jauregian. Konferentziak 1.600 pertsona baino gehiago bildu zituen (teknologia irekiekin lotutako profesionalak, enpresak eta erakundeak).



Aurtengo hitzaldiek ardatz nagusi izan dituzte hauek:

- ▲ Zibersegurtasuna
- ▲ Konputazio kuantikoa
- ▲ Berrikuntza irekia
- ▲ Metabertsoa, Web 3 eta NFTak
- ▲ Eraldaketa digitala
- ▲ Adimen Artifiziala, 5.0 industria eta Edge Computing

Bi egunetan zehar, hizlariak beren esperientzien eta arrakasta-kasuen berri eman zuten. Eusko Jaurlaritzaren ordezkari joan ziren Oscar Guadilla, EJIeko Berrikuntza eta Zaintza Teknologikoaren arduraduna, eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritza (IKTZ).

Oscar Guadillak «NIK, patrika digitala» proiektua aurkeztu zuen. Eusko Jaurlaritzak ezarritako ekimen berri bat da, eta aurrerapen handia izango da herritarrentzat, Administrazioaren zenbait zerbitzu erabiltzeko orduan. IKTZk, berriz, OpenApps/TEKgunea proiektuan izandako aurrerapenak azaldu zituen. Gordailu bat da eta EAEko administrazioak garatutako softwarea argitaratzea eta partekatzea du helburu.



Informazio gehiago hemen:
<https://www.librecon.io>

PROTAGONISTAK

2022ko Gladys saria, Olatz Pérez de Viñasprentzat

Olatz Pérez de Viñaspre Garraldak (Gasteiz, 1987) irabazi du «Gladys Saria»-ren II. edizioa.

Olatz Pérez de Viñaspre sistemen informatikan ingeniari teknikoa eta informatikan ingeniaria da, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultatean egin zituen ikasketa horiek. Ondoren, Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamenduko (HAP) Masterra egin zuen 2011tik 2013ra bitartean. Azkenik, 2017an, Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamenduko Doktoretza-programa amaitu zuen UPV/EHUko Informatika Fakultatean, Donostian.

Gaur egun irakasle atxikia da UPV/EHUko Informatika Fakultateko Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia Sailean, eta ikerketaren munduan ere badihardu.

Nabarmentzekoa da, halaber, Koldo Mitxelena Sari VI. edizioan, 2018an, Ingeniaritza eta Arkitektura jakintza-arloko saria jaso zuela. Gainera, I. Ikerlariaren Euskarazko Nazioarteko Ikerketa kongresuan Udalbiltzak emandako Sari Berezia eskuratu zuen, Euskal Herriaren garapenerako bereziki garrantzitsua den gaia lantzeagatik.

Sari honek Gladys del Estal informatikariaren izena darama, eta PuntuEUS Fundazioak eta UPV/EHUko Informatika Fakultateak antolatzen dute. Sariaren helburua zera da: ingurune digitalean lan egiten duten Euskal Herriko emakume gazteak saritzea, gazteentzako erreferente berriak sortzea eta haien lana zabaltzea.



Olatz Pérez de Viñaspre
[Argazkia: UPV/EHU]

Informazio gehiago hemen:

<https://www.ehu.eus>

